

bai

ziurtagiridunen aldizkaria



ziurtagiriaren
elkartea

13. alea

2014ko martxoa

Karlos Argiñano, sukaldaria

*“Naturaltasunez
hartu dugu Ziurtagiria”*



Rober Gutiérrez [Zuzendaria]

@robergutierrez

Gakoa, arduraz jokatzea

Albiste ona da, zalantzarik gabe, edozein administrazioarekin lankidetzatza-hitzarmen bat sinatzea, kolaborazioan aritzeko bide emankorra zabaltzen duelako. Ez da, ordea, kontu isolatu hutsa izan behar, pertsona guztion eskubideak babestea eta bermatzea helburu duten politiken ondorioa baizik. Eta sarri, gehiegitan, irudipena daukat politika horiek ez gaituztela euskal hiztunok kontuan hartzen.

Euskaraz aritu nahi izaten dugu udaletxera joaten garenean, medikuarenean, gobernuen aurrean gestio bat egin nahi dugunean, enpresa berri bat sortzeko prozesuan. Euskara ikusi nahi izaten dugu gure kaleetan dauden herri-lanetan. Euskara ikusi, entzun eta jardun nahi izaten dugu administrazioek antolatzen, sustatzen edo-eta diruz laguntzen dituzten ekimenetan.

Egunotan, Gasteizko Udalarekin sinatu dugun hitzarmenaren harira, harremanetan ari gara hirian antolatzen diren eta administrazioen (diru)laguntzak jasotzen dituzten ekimenetako kudeatzaileekin. Inork ez die onartutako hizkuntza irizpideen berri eman, inork ez die hizkuntza bat edo beste erabiltzeko azaldu, nahiz eta legeak, ordenantzak, hizkuntza ofizialen eskuliburuak eta irizpideak dauden. Bestalde, berriki, Gipuzkoako Foru Aldundian eta beste zenbait udalerritan gertatu denaren albiste ere izan dugu. Kasu hauetan, kontratazio publikoetarako lege onartuta dauden hizkuntza irizpideak ezartzeagatik helegitea jaso dute.

Erabaki hauek guztiek alor sozio-ekonomikoaren euskalduntzean eragin zuzena dute. Berebiziko garrantzi estrategikoa du arlo sozioekonomikoaren espazioetan euskarari lekua egiteak. Horregatik, administrazioak ere eredugarriak izan behar dira, lidergoa bere gain hartuz eta arduraz jokatzuz. Erantzukizunez.

kolaborazioa 03

Miel Anjel Elustondo,
Bezerook eragiten dugu

berriak 04

LANSAREAN,
lanerako erreminta berria

elkarriketa 06

Karlos Argiñano,
sukaldaria

ziurtagiriaren elkarteko berriak 10

Barañaingo familia
handitzen ari da

Urte berri, ziurtagiri berri

berriak 11

Euskontu:
beherapenak euskaraz

erreportajea 12

Gasteizen eragitera goaz

Argitaratzailea: Ziurtagiriaren Elkarte www.baieuskarari.org | Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain t. 943592148 | 1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041 | Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026 | Pedro Asua, 27 behe - 01008 Gasteiz t. 945215196 | Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa 31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez | Kudeaketa eta erredakzio-taldea: Ziurtagiriaren Elkarte eta Kultur Atelier | Diseinua eta maketazioa: dalvez | Argazkiak: Ziurtagiriaren Elkarte, Mendia Optika, Jakintza liburu-denda, Anselmo Moreno zapata-denda, Gasteizko Udala, Martxuka | Inprimatzailea: Leitzaran | Banaketa: Ziurtagiriaren Elkarte | Lege gordailua: SS-497-2010

 @baieuskarari

 baieuskarariziurtagiria

 www.baisarean.org



TALLERES
MITXELENA S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Miel A.
Elustondo

Nire kasuan -eta beste zenbait lagunen izenean ere mintzo naiz-, erabakigarria da saltokietan arreta euskaraz ematea. Handik hona eta hemendik hara ibili ohi gara, euskaraz salduko digun merkataria-riaren edo ostalariaren bila. Plus bat ordaindu ohi dugu euskaraz har gaitzaten. Pozik ordaindu ere!

Bezerook eragiten dugu

Ez dakit izenak emateko lekua den hau, baina Mendia Optikara sartu eta euskaraz jardun naiteke, natural. Edo Agirre Lekue farmazian Lakuan. Edo Andra Mari Zuria plazako Erdian-en. Edo Pitiminin eta Zuloan Hegileak kalean. Edo Elkarren. Edo Galeria del Libron. Edo JGn. Edo Riojanan. Edo Lekeitioko Iñakiren auto garajea. Edo biodendan.

Gasteizko bilakaera soziolinguistikoa esanguratsua izan da azken urteotan. Hala ere, kalean euskararen erabilerak ez du % 4ko langa gaintitzen. Zer behar dugu bilakaera areagotzeko? Hasteko, politikariak eta eragileak erre berean, edo paraleloan, edo dena delako modu koordinatuan lanean lotu; behar dugu aktibatu, lehenengo geure buruak, ondoren gizarte aktibatze; eta behar dugu liderra: eta behar ditugu planak, arlo guztietan, betetzeko modukoak eta beteko ditugunak. Baina hori dena esana dute Jon Sarasuak, Amaia Baldak, Iñaki Martinez de Lunak, Kike Amonarriek...

Interbentziorik gabe ez da aldaketarik izango, ez da euskara gehiago erabiliko. Lehengo lepotik burua gailtza, ordea, eta lehengo lepotik burua ibiliko garela uste dut. Beharbada, PNVk eta Bilduk bat egin eta euskarari bultzada ematea erabakiko balute... Baina nor bere zilborrari begira ari da lanean, botere borrokan, eta bitartean gu "izorrai!" Euskararen alde lanean ari diren talde eta askotariko eragileekin bat eginik biziko gara euskaraz Gasteizen, katakonbetan bada ere.

Bitartean, geure gain hartu beharko dugu lidergotza. Nola? Euskaraz komunikatuz. Euskaraz komunikatzen bagara, esate baterako, bezerook merkataria eta ostalarien hizkuntza aukeraketan eragin dezakegu. Euska-

raz txintik esaten ez badugu, eragiteko modurik ez da. Begira, zapata dendara sartu ginen eguberrietan. Gu, euskaraz. Laster zen bertako neska gaztea euskaraz gurekin. Oinetakoak erosi eta biharamunean aldatze- ra joan ginenean, dendako nagusiak berak ekin zion, historia eta istorio, euskara zela eta ez zela, aldeko jar- rieran guztiz. Bezeroak eragiten du, eragiten duenez.

Merkataria eta ostalari sektorea estrategikoa da urrat- sak ematen jarraitu nahi badugu. Eta nire kasuan -eta beste zenbait lagunen izenean ere mintzo naiz-, eraba- kigarria da saltokietan arreta euskaraz ematea. Handik hona eta hemendik hara ibili ohi gara, euskaraz salduko digun merkataria-riaren edo ostalariaren bila. Plus bat or- daindu ohi dugu euskaraz har gaitzaten. Pozik ordain- du ere! Ogitartekoak, ogia, betaurreko eta lentillak, autoaren konponketa, egunkaria, janaria... Nahiago dut euskaraz erosi, askozaz nahiago! Euskaraz saldu egiten du, saltzaile txarra horretaz jabetu ez den arren.

Zalantzarik ez dut. Euskaraz lehiakorrago egiten du ezein negozio Gasteizen. Baita ingelesak ere. Eta fran- tsesak... Baina euskaraz bezainbat, arabierak egiten du lehiakorrago negozioa Gasteizen. Eta, turismoari da- gokionez, katalanak. Neure begiz ikusitakotik ari naiz, baina Tartalo bezain begibakar bizi naiz.

Tituluak pilatzeko amorraturik bizi direnez agintariak, lasterketa ero horretan beste koxka bat litzateke eus- kararen hiriburutza Gasteizen, aurrez Green Capital edo orain Gastronomiaren hiriburua den bezala. Jakina, agintariok gustuko dutenez, "basque language capital" izango litzateke Vitoria-Gasteiz. Inoiz ez "euskararen hi- riburu." Eta edukiz hustua, betiere. Aukeran, euska- ren hiriburu, hobe ez.

berriak

LANsarean

Enpresa edo-eta profesional euskaldunak ezagutzeko erreminta



Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak martxan jarri duen azkeneko egitasmoa da LANSAREAN, enpresa edo-eta profesional euskaldunak ezagutzeko aukera erraztuko duen lan-ataria. Bitarlan Informatika eta Web Zerbitzuak enpresak garatu du, eta beta bertsioa sarean da.



Leitzaran Grafikak, S.L.
Martín Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel: 943 303510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala

Bilalan, aurrekaria

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek sustatu duen erreminta berriak baditu aurrekariak: gaztelerazko InfoJobs edo bere garaian Euskalkidetzak sustatutako Bilalan proiektua. Hain zuzen, azken hori hobetzeraz datorrela azaldu du Bitarlaneko Jabi Asurmendik. "Aurpegia aldatu diogu, diseinu modernoago bat emanez. Baina aldaketa garrantzitsuenak erabilgarritasunean daude: funtzionalitateak azkarragoak dira, hautaketa prozesuak erraztu ditugu filtroen bidez, curriculumak ere errazago osa daitezke; sare sozialak integratu dizkiogu, baina batez ere, oso erabilerraza da".



Horixe baita helburua, enpresa edo-eta profesional euskaldunak eza-gutzeko erraztasunak ematen dituen erreminta lan-eskaintzez eta hautagaiez hornitzea, eta bide batez, alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea.

LANSAREAN langileak kontratatu nahi dituzten enpresei edo-eta lan bila ari diren profesionali zuzendutako lan-tresna da. Enpresek, hautaketa prozesuak kudeatu ahal izango dituzte eta eskaintzen dituzten lanpostuetarako hautagaiak aurkitu ahal izango dituzte.

Lan bila ari diren pertsonak, berriz, enpresen lan-eskaintzen berri jasotzeaz gain, eskaintza horietan izena emateko aukera izango dute.

Aurrez, bai enpresek eta baita lan bila ari diren profesionalak LANSAREANen sartu eta alta eman beharko dute "Enpresa" edo "Hautagai" be-

zala. Momentuz, zerbitzua doakoa da.

Etorkizun oparoa

Rober Gutiérrez Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak "oso tresna baliagarri" bezala definitu du lan-ataria. Bere ustetan, "Bai Euskarari eta Enpresarean proiektuak indartuko ditu, balio erantsi handiko zerbitzua gehituz eta euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta pertsonen arteko harremana sustatuko du".

Gainera, alor sozioekonomikoaren euskalduntzean beste urrats bat ematen lagunduko duela azaldu du, "lan munduan euskararen presentzia areagotzeko bidea erraztuko duelako". Zentzu horretan, enpresak eta profesionalak animatu ditu LANSAREAN erabiltzera.

Gutiérrezek etorkizun oparoa ikusten dio erreminta berriari. Zentzu ho-

rretan, Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak gogorarazi du gaur egun 1.500 entitatek daukatela Ziurtagiria, eta Enpresarean egitasmoan ere berrehundik gora enpresek parte hartzen dutela. "Horiek guztiek eskura izango dute LANSAREAN, zehazten ari garen abantailekin gainera".

Jabi Asurmendik arrakastaren gakoa erabileran egongo dela argi du. Argi duen bezala LANSAREAN oso erreminta interesgarria dela, "eta ez bakarrik euskara hutsean funtzionatzeko duelako, erabilgarria delako bai zik" x

Bi urrats erreminta berria erabiltzeko:

- 1.- LANSAREANen sartu (www.lansarean.org)
- 2.- Alta eman "Enpresa" edo "Hautagai" bezala azaltzen den formularioa bete ondoren.

libbuk
ekar

2



elkarlibbuk.elkar.com
www.elkar.com



BERTSIO BERRITUA



Karlos Argiñano, sukaldaria

“Naturaltasunez hartu dugu Ziurtagiria, eta harrotasunez jarri dugu gure etxean”

Paraje paregabe hartu gaitu Karlos Argiñanok (Beasain, 1948). K5 txakolindegiko upategian egin diogu elkarrizketa, Aian. Itsas mailatik 300 metrora dagoen muinotik Kantauri itsasoa ikusten da: ezkerraldean, Getariako arratoia; eskuinean, Orioko arrantza posturako sarrera. Baina izan zitekeen Argiñano jatetxean, Bainen ekoiztetxean edo-eta Aiala sukaldaritza eskolan. Telebistan hainbestetan famatu duen perrexila bezalakoa baita, saltsa guztietako osagaia.

Wikipedian jartzen du Karlos Argiñano sukaldari, telebistako aurkezle, aktore eta enpresa-buru euskalduna dela. Ados zaude?

Bai, hala da. Txapista naizela ahaztu zaie. Sukaldari sartu aurretik CAFen aritu nintzen lanean hiru urtez.

Zuk nola definituko zenuke zure burua?

Ni sukaldaria naiz, hori argi daukat. Telebistan oso eroso sentitzen naiz, gustatzen zait gainera. Telebistak beste mila saltsatan sartzeko atea zabaldu dit. Hamahiru programa egiteko sartu nintzen ETB1en, eta orain bukatu ezinik nago. Ez dut bukatu nahi gainera, lauzpabost urtetan gerra eman behar dut.

Umetan autobus gidaria izan nahi omen zenuen!

Taxi-gidari baten semea naiz. Aitaren lanbidea aspergarria iruditzen zitzaidan, inguruko herrietan beti buelta

berdinak ematen. Autobusa erosi eta jendea Lurdako santutegira eraman nahi nuen, urrutira. Guretzat bederen, oso urrun baitzegoen.

Aurrekari horiekin, nola sartu zinen sukaldari?

CAFen lanean nengoela Zarautzen Ostalaritza Eskola zabaldu behar zutela irakurri nuen. Gustuko nuen sukaldean lardaskan aritzea, eta bitan pentsatu gabe Zarautza joan nintzen —eta bertan zarautzartu da, Beasain jaioterria beti presente duen arren—. Luis Irizar zen gure maisua, maisu ona eta gizon hobea; asko ikasi genuen harekin. Kurtso berekoak ginen Pedro Subijana, Ramon Roteta, ni eta beste asko.

Ikasketak amaitu eta Zarauzko Golfeko jatetxea hartu. Azkar eman zenuen urratsa.

Azkeneko soldata Zarauzko Royalty kafetegian jaso nuen, 20 urterekin.

Orduz geroztik neronek ordaindu ditut soldatak, hutsik egin gabe. Bederatzi urte egin nituen bertan.

Golfetik Argiñano jatetxera.

Jatetxe propioa zabaltzeko beharra nuen, dirurik ez ordea. Lagun bati eskatu nion, eta hark nik baino gehiago jarri zuen.

Ausardiarik ez zenuen falta.

Argiñano beti aurrera! Eskerrak aldamenean lagun onak izan ditudan; onak eta azkarrak. Aizkorarekin lehenengo kolpea nik eman izan dut beti,

“Askotan errepikatzen dut mundu honetan familia, lagunak eta lantokia oso ondo zaindu beharrekoak direla, arrakastaren oinarrian daudelako”



eta gero atzetik etorri dira nik egin-dakoak konpontzera (kar, kar).

Lagun onak izatea zein garrantzi-tsua den!

Askotan errepikatzen dut mundu honetan familia, lagunak eta lantokia oso ondo zaindu beharrekoak direla, arrakastaren oinarrian daudelako.

Bestelako gauzak desagertu daitezke, baina hiru horiek ez. Eta iruditzen zait jendea bestelako kontuekin tematzen dela.

Karlos, zertan zabilta gaur egun.
Karlos Argiñano en tu cocina tele-
bista saioaz aparte, besterik egiten
duzu?

“Prendre le Label a été quelque chose de naturel; nous sommes très fiers d’afficher l’autocollant à l’entrée”

Karlos Argiñano est cuisinier, présentateur, acteur, entrepreneur... Actuellement il compte avec plus de 250 salariés sous ses ordres.

Engagé avec ses idées, jamais il n’a hésité à utiliser son image pour promouvoir notre langue, l’euskara. «Il ne serait pas normal de ne pas le faire», souligne-t-il. Il rajoute: «les personnes publiques comme moi, nous pouvons et devons promouvoir et défendre nos produits, notre culture, notre langue... Même si des fois cela suppose d’être face à des casses têtes».

Le restaurant Argiñano et la production de tv Bainen ont le Label Bai Euskarari, “naturellement et avec fierté”, comme souligne Carlos Argiñano.

Lanean serio-serio telebistan bakarrik nabil, ia dedikazio osoz. Gero animatzaile aritzen naiz, hoteletako horiek bezala.

Animatzaile?

Bai, ba. Sukaldari eskolara joan, txakolindegira etorri, okindegia bisitatu, jatetxetik pasa... eta guztiei behin eta berriro errepikatzen diet onenak garela, inork ez duela gurea bezalako txakolinik egiten, Zarauzko ogirik onena gurea dela... Langileak animatzen badituzu, eta zure inplikazioa adierazten badiezu, sinistu egiten dizute. Negozio guzti hauekin ez dut dirurik nahi, nahikoa irabazten dut. Interesatzen zaidana da inguruko jendeari lana ematea, lanpostuak sortzea.

Ez da helburu makala!

Ez motel! Lanpostuak sortu, eta mantendu. Horrek ematen dit poza. Eta osasunez eta indarrez nagoen bitartean, horrela jarraitzea da nire asmoa.

Epe laburreko erronkarik ba al duzu?

Momentu honetan egitasmo ugari dauzkatz eskutartean; jendeak akaso pentsatuko du Argiñanok telebistarako baino ez duela lanik egiten, baina 250 langile dauzkatz nire kontura. Eta horiek denak ondo zaintzen nahiko lana badaukat.

Horrenbeste lanarekin, zure burua zaintzeko tarterik hartzen al duzu?

Bai noski. Egutero-egutero bi orduko ibilalditxoak egiten dut. 50 urtetik gora zure burua zaindu behar duzu, besteak beste. Osasuna da gure motorra. Gainontzean, pilota partidak ikustera joaten naiz, Moto2ko nire taldea jarraitzen dut –Argiñano & Gines Racing–, familia hor dago...

Aitundu zaituztela irakurri dut -zazpi seme-alaba eta beste horrenbeste biloba dauzka-. Zer zara, aita ala aitona hobe?

Aitona ona naiz, eta aita ona izan naitzela pentsatzen dut. Akaso, senar txepela (kar, kar).

2005ean Bai Euskarari Ziurtagiriaren kanpainaren aurpegia izan zinen. Halakoetan beti eman duzu aurpegia. Zerk bultzatu zaitu? Zein leku du euskarak zure bizitzan?

Euskararekiko konpromisoa beti izan dut oso presente, etxetik hasita. Nire seme-alabekin euskaraz hitz egin dut, herriko ikastolara joan dira; herriari, euskaraz eta gure erara. Kontu honekin liskar dezente izan ditut nire lagunekin, euren seme-alabak *Colegio Alemán* delakora edo antzekoetara bidali dituztelako. Galdetzen nien, “baina zuen seme-alabak zer joan behar dute Dusserloffera bizitzera?”. Lehendabizi gurea mamitu beharko

Karlos Argiñanok sarritan adierazi du euskararen aldeko konpromisoa. 2005 urtean, adibidez, Bai Euskarari Ziurtagiriaren kanpainaren irudia izan zen.



dute, gero izango dute kanpora joateko aukera.

Kontziente zara erreferente zarela jende askorentzat? Zure mezuek oihartzuna dute, eta euskararekiko atxikimenduak eragina du besteengan.

Interesgarria da gu bezalako jende xelebre euskararekiko konpromisoa adieraztea. Hala ere, gaia korapilatsua da. Gertatu izan zait jendeak galdetzea, “baina zer egiten duzu zuk Antena3 katean?”. Ba besteak beste, gure kulturari, gure produktuei, gure hizkuntzari gorazarre egin. Eta nik

horrekin batera, gure kultura eta gure hizkuntza.

Argiñano jatetxean eta Baint-en Bai Euskarari Ziurtagiria duzue. Zergatik hartu zenuten Ziurtagiria?

Zergatik ez? Horrek beharko luke galdera. Guk naturaltasunez hartu dugu Ziurtagiria, eta harrotasunez jarri dugu gure etxean. Etxe honetako lehenengo hizkuntza euskara da.

Hori zen hurrengo galdera. Zein leku hartzen du euskarak zuen lan esparruan?

Ahal dugun guztietan aritzen gara euskaraz. Euskaraz ez dakien norbaitekin aritzen bagara, gaztelerara pasatzen gara. Baina gure inguruan hamarretik zortzik badakite euskaraz.

Orain dela 40 urte ez nuen pentsatzen euskarak gaur egun duen indarra izango zuenik. Baserriekin batera desagertuko zela pentsatzen nuen. Zorionez erratuta nengo. Buelta eman zaio egoerari, eta belaunaldi berriek hauspotuko dute. Seguru.

Sukaldaritzan, euskarazko hiztegia ezartzea ez da ba izan kontu erraza.

Bai, makina buruhauste izan ditugu. Kontuan izan gure belaunaldiak ikasketak guztiak gazteleraz egin zituela, eta gure hastapenetan apenas zegoe la euskarazko hiztegiak sukaldaritzan.

“Orain 40 urte ez nuen pentsatzen euskara horren indartsu mantenduko zenik. Baserriekin batera desagertuko zela pentsatzen nuen. Zorionez erratuta nengo”

bezala, euskal sukaldariak kanpora ateratzen garenean gurea maitasun handiz saltzen dugu: hemengo itsasoa, hemengo sagardoa edo txakolina, gure baratzeko produktuak... eta

Gainera, plater oso elaboratuak egiten hasi ginen, esate baterako, oraindik gogoan dudalako: *Terrina de frutos del mar al aroma de jengibre en gelatina*. Nola itzuli hura euskarara? Hasiera batean karta haiek gaztelaraz zeuden, eta kritikak jaso genituen. Kritika gorrak. Zorionez, hizkuntzarekin geneuzkan arazoak gainditzen joan gara.

Euskal sukaldaritzaren berriaren ekarpena izan da hori.

Euskal hiztegia garatzen joan gara, meritu handiko lana. Hala ere, esango nuke zor zaigun meriturik handiena gure lanbidearen duintasunaren defentsan egindako lanean dagoela. Gaur egun sukaldaria gizon eta emakume errespetatua da, baina garai batean sukaldariak klaseko azkenak izaten ginen, gure lanbidea ez zegoen oso ongi ikusia.

Amaitzeko, Gasteiz izendatu dute Gastronomiaren Hiriburu. Zer iritzi daukazu?

Izendapen horrek aditzera ematen du Euskal Herrian sukaldari harrobi ikaragarria daukagula, alegia, ez dugula futbolearen bezala Brasilera joan behar sukaldari onak ekartzera, hemen daukagulako. Eta hemen sukaldari ona dena, kanpoan ondo moldatzen da. Beste aldagai batekin, sukaldari emakumeak sartzen ari direla. Eta hori oso berri ona da **X**

“Euskal sukaldariak kanpora goazenean gurea maitasun handiz saltzen dugu: hemengo sagardoa edo txakolina, baratzeko produktuak, gure kultura, hizkuntza...”

“Obtener El Certificado fue algo natural; estamos muy orgullosos de mostrar su imagen en nuestra casa”

Karlos Argiñano es como el perejil que tanto promociona, un ingrediente que no puede faltar en ninguna salsa. Cocinero, presentador, actor, empresario... En la actualidad cuenta con más de 250 empleados, a los que dedica cuerpo y alma.

Comprometido con sus ideales, nunca ha dudado en dar la cara por nuestra lengua, el euskera. “Lo raro sería no hacerlo”, apunta. Mientras señala que “personajes públicos como yo podemos y debemos apoyar nuestros productos, nuestra cultura, nuestro idioma... aunque de vez en cuando suponga tener algún que otro quebradero de cabeza”.

Tanto el restaurante Argiñano como la productora Baint acreditado el Certificado Bai Euskarari, “con naturalidad y con orgullo”, como señala Karlos Argiñano.



Barañaingo familia handitzen ari da

Hogeita hemeretzi enpresa, saltoki eta bestelako entitatek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria Barañainen, aurreko edizioan baino lau gehiagok. Hain zuzen, Etxartenea kafetegiak, Merlet S.L.k, Plazaberrik eta Iratxe Tanatorio Taldeak estreinakoz jaso dute Ziurtagiria.

Nabarmentzekoa da, era berean, Ba-

rañaingo Trikitilari Eskola eta Harizti Barañaingo Dantza Taldea mailaz igo direla: lehena, *Bidean* mailatik *Zerbitzua euskaraz* mailara pasa da; eta bigarrena, *Zerbitzua euskaraz* mailatik, *Zerbitzua eta lana euskaraz* maila gorenera.

Gainontzean, mailaz maila, hauek dira banatu diren Ziurtagiriak *Zerbitzua eta*

lana euskaraz maila gorena, 3; *Zerbitzua euskaraz* maila ertaina, 4; eta *Bidean* hastapen maila, 32.

Banaketa ekitaldiaren zortzigarren edizioan Rober Gutiérrez Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendaria eta Jose Antonio Mendive Barañaingo UPNko alkatea izan ziren.



Urte berri, Ziurtagiri berri

Martxoan sartuta gauden arren, 2014ko lehenengo aldizkaria da eskuartean duzuen. Ziurtagiriaren Elkartearen familia handitzen ari da etengabe, eta urtariletik hona Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duten guztiei ongi-etorria ematea erabaki dugu.

Guztira, hogeita bederatzi dira Ziurtagiriaren trenera igo direnak:

Zerbitzua eta lana euskaraz: Hitzurun Hizkuntza Zerbitzua (Andoain), Arteman (Eskoriatza)

Zerbitzua euskaraz: Goicoechea Mirentxu ile-apaindegia (Donibane Garazi), Ttalaka Kultur Elkartea (Donostia), Tisa (Donostia), Azkarprint (Gasteiz).

Bidean: Ttilika Gasteiz, Ega Master (Gasteiz), Naturala bio epizeria (Kanbo), ENEA iraunkorta-

sunerako autore-aholkularitza (Donostia), Goroldi (Donostia), Jakintza liburu denda (Gasteiz), Tartasenia landetxea (Donibane Garazi), Filatelia Gasteiz, Landaberri S.L. (Tolosa), FCC – Hiri Zerbitzuak (Hernani), Antenne + Pays Basque (Bidarte), Sarl Apesteguy (Arbona), Martxuka (Urruña), IG Karra-tu Arkitektura (Gasteiz), Iratxe Iorazaintza (Anoeta), Plaza Berri elkartea (Barañain), Merlet (Barañain), Iratxe Tanatorio taldea (Barañain), Zulueta farmazia (Gasteiz), Elortegi eraikuntzak (Portugalete), Auxo albaitaritza (Gasteiz), Puente farmazia (Gasteiz), Goretti ileapaindegia (Gasteiz).

Bakoitzak zuen eremuan euskararen normalizazioan eragiten ari zarete; lan munduan, eta gizartearen oro har. Ahalegin horrek gure esker ona merezi du. Bejondeizuela!



bidera
zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa
Itzulpenak-Aholkularitza
Publizitatea-Dei zentroa



berria
taldea

www.bidera.eu

bidera@bidera.eu

Tel.: 943 05 81 54

Euskontu: beherapenak euskaraz

Ttalaka Kultur Elkartea irabazi asmorik gabeko elkarte donostiarra da. Elkartearen helburua euskaraz bizitzeko baliabideak eskaintzea da, teknologia berrien laguntzarekin. Eta sarea astintzen ari dira, euskarak zein euskal kulturak bertan duten presentzia, eta kontsumoa, areagotzeko. Euskontu adibide bat baino ez da.

Aisialdia euskaraz disfrutatzeko aukera ematen duen plataforma da Euskontu. Produktuak eta zerbitzuak euskaraz garatzen dituzten enpresen eskaintzak jasotzen dituzte, beherapenarekin. "Gustuko duzun hori eskaintzen dugu, beti ere euskaraz eta gainera beherapenarekin", horrela laburtu digu egitasmoa Arkaitz Sukuntzak, Euskontuko kideetako batek.

Kontzertuak, jatetxeak, kirol eskaintzak, era guztietako ikuskizunak, moda, osasuna eta estetika, asteburu pasak eta abar, euskaraz. Ezaugarri horrek bereizten du Euskontu antzeko beste plataformetatik. "Gure konpromisoa da, negoziatu ezin den baldintza. Gure erosleek euskaraz kontsumitzen dituzte gure produktuak".

Izan ere, euskararen normalizazioan eragitea da Euskonturen helburuetako bat. "Euskaraz bizi nahi dugu, gure hizkuntza sustatzeari garrantzi handia ematen diogu, eta normalizazio prozesuaren parte izan nahi dugu", berretsi du Euskontuko kideak. Haratago doaz, "enpresek euskararekiko duten konpromisoa bermatzen dugu".

Erosleak eta enpresak

Erosleak eta enpresak, enpresak eta erosleak. Horixe da Euskonturen xede publikoa. Iragarkiak egiteko erreminta berri-tzailea da, "negozioak ezagutarazteko eta bezero berriengana iristeko tresna da gurea, gasturik ez duena. Eskatzen diegun gauza bakarra eskaini nahi duten produktu edo zerbitzua definitzea da".



Erosleek, berriz, Euskontun harpidetu baino ez dute egin behar. Edo-eta Facebook zein Twitter sare sozialetan Euskontu jarraitu. "Bertan jasoko dituzte gure eskaintza guztiak; gustuko dituzten horiek aukeratzea, horixe da egin beharreko bakarra".

Zailtasunak zailtasun, "oraindik ere kosta egiten delako %100ean produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten negozioak aurkitzea", badoaz aurrera. Gainera, Euskontuko diru-sarrerak Ttalaka Kultur Elkarteko jarduna finantzatzera bideratzen da.

Momentu honetan, buru-belarri dabilta www.ttalaka.org webgunearen sorreran. Laster izango da sarean, horrela iragarri digu Arkaitzek. Bertan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroan euskaraz burutzen diren ekintza kulturalen inguruko informazio guztia biltzen ahaleginduko dira. Ttalakaren helburua euskara eta euskal kultura sustatzea baita.

► TALAKA KULTUR ELKARTEA

Bai Euskarari Ziurtagiria **Zerbitzua eta lana euskaraz** maila

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

Euskara eta hizkuntzen kudeaketa, kultura, aniztasun zein parte hartze gaietan kalitatezko aholkularitza

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO

www.emun.com


HIZKUNTZA
ZERBITZUAK


KULTURA
ZERBITZUAK


ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK


PARTE HARTZE
ZERBITZUAK





Gasteizen eragitera

Gasteizko arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzea helburu duen lankidetza-hitzarmena sinatu du Ziurtagiriaren Elkartek Gasteizko Udalarekin. 2014ko azaroaren 30era arte luzatuko da, eta bitarte horretan erabilera sustatzeaz gain lan horretan ari diren establezimenduen eta entitateen ahalegina aitortu eta haiekin elkarlanean aritzeaz gain, erreferente berriak sortu eta sare-lana bultzatuko dugu.

Ziurtagiriaren Elkartek honako konpromiso hauek hartu ditu: komunikazio eta sustapen lana egitea; euskarak arlo sozio-ekonomikoan duen balioa azpimarratzea; eraginkortasunari begira, eragile interesgarriak identifikatzea eta haiei zuzentzea; kontuan hartzea Udalak babesten dituen ekimenen antolaketan aritzen diren enpresak eta entitateak; Ziurtagiria eskuratzeko interesa duten entitateei euren hizkuntza-egoeraren azterketa egitea -horretarako pertsona bat kontratatu dugu-; eta azkenik, egitasmoan parte hartzen duten entitateen erregistroa osatzea.

Hitzarmena, bereziki, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorerara bideratuko dugu. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Gasteizen Bai Euskarari Ziurtagi-

ria eskuratzen duten saltoki, taberna, jatetxe eta abarrek urteko kuotaren % 50eko beherapena izango dutela. Horrela jasotzen da hitzarmenean.

Aipatu sektoreez gain, Ziurtagiriaren Elkartek Gasteizko Udalak antolatzaile/ laguntzaile gisa agertzen den ekitaldietan euskararen presentzia areagotzeko lan egingo du. Besteak beste, hizkuntza paisaian, aurkezpenetan, prentsaurrekoetan, eta abarretan euskararen presentzia indartzea bilatzen du hitzarmenak.

Hitzarmenarekin, pozik

Bi aldeak pozik agertu dira lankidetza hitzarmenarekin. Alfredo Iturricha Gasteizko Udaleko Herriarren Zerbitzuen arloko zinegotziaren hitzetan, "hitzarmenare-

kin merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuen sektorean euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen presentzia areagotzeko aukera indartzen dugu." Zinegotziak azaldu duenez, Gasteizko Udalak zazpi urte daramatza lan horretan. "2013an, esate baterako, 363 merkataritza establezimendu eta 138 ostalaritza lokal bisitatu genituen. Bisita hauetan euskararen presentzia areagotzeko euskarriak eskaintzen zaizkie enpresei (fakturak, kartelak, gaikako hiztegi txikiak...)"

Rober Gutiérrez Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak elkarlanaren garrantzia azpimarratu du, "Udalaren eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarrearen artean kolaborazioan aritzeko bidea zabaltzen duelako". Bere iritziz, "hitzarmena tres-

Anselmo Moreno oinetakoak
Arabako HIESaren Kontrako Batzordea
ASAJER
Arriaga autobusak
Auxo Albaitaritza
Cega Multidistribución
Cegasa Internacional
Deportivo Alavés S.A.D.
EGA MASTER
Egibide
El Hogar Gasteiz burdindegia
Elkar Gasteiz - Campus
Elkar Gasteiz - San Prudencio
Euskadiko GGKEn Koordinakundea - Araba
Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioa
Filatelia Gasteiz

FREMAP-Araba
Gasteizko Zeledonon Elkarte
Goretti ileapaindegia
IG Karratu Arkitektura
Jakintza liburudenda
Jimmy Jazz Gasteiz
Kide Mobiliario
Mendia Optika
Merkatarien eta Zerbitzuen Arabako Federazioa
Puente Farmazia
Saski Baskonia S.A.D.
Sercolux
Sociedad de Prevención Fremap S.L.U. - Araba
Ttilika gasteiz
Zulueta Farmazia

Agirre Lekue farmazia
AZKARPRINT inprimategia
Dalvez argitarazleak
Denon Eskola
ERKIDE

Euskadiko Kooperatiben
Konfederazioa
Hala Bedi Irratia
Lizarralde Soinua - Txalaparta S.L.
OREKA IT

FRANTZIA KALEKO TABAKO DENDA

"Aupa" esan diot tabako dendaren jabeari txanda iritsi zaidanean; "Aupa" edo "Arratsalde on", egunaren arabera. Denadaria gizonezkoa da, edo emakumezkoa. "Berdin" erantzun dit, edo "Aupa". "Marlboro light bat" eskatu diot, orain "light" ezin esan den arren, badago legeren bat, baina ulertu dit. Tabako paketea eman dit eta "Lau eta hogeitabost" eskatu, edo "Lau eta hogeita hamabost", etengabe igotzen da tabakoren prezioa. Dirua eman diot, berak niri batzutan bueltak, eta "Adio" esan, edo "Agur". "Agur, bai" erantzun dit. Tabako dendan dauden batzuk harritu dira. Kalera atera naiz, Frantzia kalera, Gasteizen jakina. Arratsaldeko zazpi eta erdiak dira eta maite dut ordu honetan, kale honetan, dagoen mugimendua: jendez beterik daude espaloiak, autobusak azkar doaz, sirena hotsak entzun ditut urrun. Ilun da dagoeneko. Gauza gutxi behar dut, zoriotsu ez dut esango, zehazgabeegia da hitza, gustura ibiltzeko nire hirian: dendari aidetsu bat, arratsalde abaildua eta haien zereginetan dabilen hirikide ezezagunak inguruan.



Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Hizkuntzaren keinua, Kontseilua

goaz

na baliagarria da Gasteizko alor sozio-ekonomikoaren euskalduntzean eragiteko. Gasteizko establezimenduetan, bezeroei, kontsumo-harremanak euskaraz izateko aukerak handitu behar zaizkie; halaber, Udalak babesten dituen eta urtean zehar gure hirian antolatzen diren ekimenetan euskararen presentzia nabarmen handiago izateko lan egin behar dugu.

Amaitzeko, Gasteizko datu soziolinguistikoak jarri ditu mahai gainean, euskarak izan duen bilakaera nabarmenduz. Azken datuen arabera, gasteiztarren % 15,5 elebidunak dira; eta kopurua izugarri handitzen da 5 eta 30 urte arteko biztanleen artean, % 50 gaindituz. Gutiérrezen hitzetan, "etorkizuna euskaraz dator, eta guzti horiei euskara erabiltzeko aukera eman behar zaie. Hitzarmen honek eragina izango duelakoan nago, euskarari espazio berriak zabalduko baitizkio".

Gaur gaurkoz, Gasteizen 40 sal-tokik, enpresek eta elkartek eskuratu dute Ziurtagiria.

Gaur egun 40 dira Gasteizen Bai Euskarari Ziurtagiria kreditatzen dutenak. Guztiekin ezin hitz egin, eta horietako hiruren testigantzak jaso ditugu: **Jakintza** liburu-denda, **Anselmo Moreno** zapata-denda eta **Mendia optika**.

1.- Zergatik erabaki zenuten Ziurtagiria eskuratzea?

2.-Merkatariak, ostalariak, oro har, zerbitzu enpresek harreman zuzena duzue erosleekin. Kontziente zarete euskararen erabileraren duzuen eraginaz?

3.-Nabarmentzeko modukoa da Gasteizek izan duen bilakaera soziolinguistikoa. Nola ikusten duzue etorkizuna? Zein neurri hartu behar dira (instituzioak, elkarteak, ostalariak, merkataria, eta abar) euskararen presentzia areagotzeko?

Kepa Mendia, Mendia optika. *“Bezeroek euskaraz egiten badigute, euskaraz erantzuteko bideak jarri beharko ditugu”*



1.- Oso interesgarria iruditu zitzaigun zerbitzua euskaraz bermatzen dugula adierazten duen Ziurtagiria jasotzea. Konpetenziaren aurrean, esate baterako, bereizi egiten zarelako, edo-eta bezeroak erakartzeko.

2.- Eragina bistakoa da. Euskal hiztunekin euskaraz aritzean nolabaiteko hurbiltasuna lortzen duzu, giro berezia; harremanak errazagoak dira. Hala eta guztiz ere, bezeroak irabazten du, guk irabazten dugu, baina batez ere euskarak irabazten du.

3.- Gora egin du nabarmen, bai, eta etorkizunean goranzko joera horrek jarraituko du. Bi gako ikusten ditut: guztiok norabide berean aritzea ezinbestekoa da; eta bigarrena, bezero euskaldunen esku dago. Euskaraz hitz egiten badigute, euskaraz erantzuteko bideak jarri beharko ditugu negozioak norabide egokian bideratu nahi baditugu behintzat.

Anselmo Moreno, Anselmo Moreno zapata-denda. *“Euskarari gero eta leku gehiago egin diogu, bilakaera naturala izan da”*



1.- Zapata dendako langileek bultzatuta izan da. Nik ez dakit euskaraz, eta garai bateko langileek ere ez zuten hitz egiten. Azkeneko urteotan langile euskaldunak hartu ditut, eta euskarak presentzia irabazi du: bezeroarekin harremana, hizkuntza paisaia eta Ziurtagiria. Bilakaera naturala izan da, eta noski, belaunaldi berriek motibatuta, euskaldunak direlako.

2.- Familia eta lagunartea garrantzitsuak dira, baina kaleak gero eta eragin handiagoa du hizkuntzen hautaketan. Eta kaleaz ari bagara, kalea gu gara: merkataria eta ostalariak. Ezinbestekoa da sektore hauetan euskara sustatzea.

3.- Instituzioen papera azpimarratuko nuke. Normalean, haiek izaten dira baliabide gehien dituztenak, eta laguntza emateko moduan daudenak. Gero, noski, bakoitzak berea jarri behar du. Sinistu egin behar da, eta guk sinisten dugu.

Begoña Knörr, Jakintza liburu-denda. *“Bai Euskarari Ziurtagiria euskararekiko dudak konpromisoaren adierazgarri da”*



1.- Nik ez dakit euskaraz. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zait euskal hiztunak diren bezeroak eroso sentitzea, eta hori euskararekiko dudak konpromisoa adieraziz lortzen dut: Bai Euskarari Ziurtagiria-ekin edo-eta neure buruari jarri nion erronkarekin, saltzen ditudan euskarazko liburuen azalpenak emanez.

2.- Nire kasuan, kontziente naiz eragin gutxi dudala, baina gure sektoreak paper garrantzitsua jokatzeko du. Ezin izan dut euskara ikasi, eta nire adinarekin ez dut uste lortuko dudarik. Hori bai, kortesiazko agurrak eta abar euskaraz egiten saiatzen naiz.

3.- Inpresioa daukat euskara maila oso oinarritzak dela, eta jakintzaren eta erabileraren artean dagoen aldea handiegia dela. Guztion erantzukizuna beharko luke alde hori murriztea.



Javier Maroto, Gasteizko alkatea:

“Euskal hiztunak kontuan hartzeko bezeroak dira”

Green Capital, Hiriburu Gastronomi-koa, mugikortasunean eredu... Badirudi Gasteiz modako dagoela.

Ingurumenaren esparruan, Gasteiz erreferente izan da azkeneko hamarkadetan, eta Green Capitek erreferentzialtasun hori berretsi zuen. Orain, Hiriburu Gastronomi-koaren izendapenarekin, gauza bera gertatzen da gastronomiaren alorrean.

Modako egon? Hori baino gehiago, Gasteiztarron artean hiri paregabe batean bizi garen sententzia areagotzen hasia dagoela esango nuke, eta gure hiriaz harro gaudela. Kanpo proiektzioa lortzeko ezinbestekoa da lehendabizi egiten ari zaren horretan sinistea.

Halako izendapenek Gasteizko irudia goratzen laguntzen dute?

Hiriburu Gastronomiakoaren kasuan, gure gastronomia, hemengo jatetxeak edo-eta gure sukaldaritza harrobia kokatzen lagunduko du. Garai gogorra da ostalaritza sektorearentzat, eta izendapenarekin bultzada jasoko du. Erakusleho ona izango da turistak erakartzeko.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek eta Gasteizko Udalak hitzarmena sinatu berri dugu alor sozio-ekonomikoan euskararen presentzian eragiteko. Zein balorazio egiten duzu?

Balorazioa positiboa da. Elkarlanean sinisten dugu, bide egokiena dela uste baitugu.

Hitzarmenak, besteak beste, euren bezeroak euskaraz artatzeko ahalegina egiten duten guztiak saritzeko balioko du.

Ziurtagiriaren Elkartarekin sinatuko hitzarmenak euskararen presentzia areagotzen lagunduko du. Zein beste neurri aurreikusten ditu Udalak euskararen presentzia sustatzeko?

Hitzarmena osagarri bat da. Udalak euskararen aldeko hainbat ekimen bideratzen ditu, eta hitzarmena horien guztien osagarri izango da: merkatariei bideratutako euskara ikastaroak; euskaraz ikasteagatik bideratzen ditugun diru-laguntzak; itzulpen zerbitzua eta errotuluak euskaratzeko zerbitzua; praktika onen sariak, eta abar.

Gehienbat merkataritzan eta ostalaritzan eragingo du. Herritarrekin, eta bisitariarekin, zuzeneko harremana duen sektorea izanik, estrategikotzat duzue eremu horretan lan egitea?

Hala da, bai. Guretzat bata zein bestea sektore estrategikoak dira, eta euskal hiztunak kontuan hartzeko bezeroak dira. Badira zazpi urte merkataria eta ostalariekin elkarlana abiatu genuenetik. Denbora horretan bi mezu zabaldu ditugu: *Eskerrik asko*, merkatariekin; eta, *Giro onean*, ostalaritza sektorearekin.

Gasteizen, halaber, hainbat ekimen antolatzen dira udalaren babesa dutenak (Festval, Azkena, Jazzaldia, Magialdia,

Gasteizko Udalarekin sinatu dugun hitzarmenaren harira, Javier Maroto alkatearen iritzia jaso nahi izan dugu.

Ardoaraba...). Ziurtagiriaren Elkartek ekitaldi horietan euskararen presentzia areagotzen lagunduko dio Udalari. Zure ustez, zein neurri garatu beharko lirake horietan?


Halako ekitaldietan euskararen presentzia areagotzea positiboa da, eta gure ustez progresiboki eman beharrekoa. Horretarako, antolatzaileekin elkarlana funtsezkoa da, hartu beharreko neurriak egokiak izan daitezen aholkua eman behar zaie, Udaleko zerbitzuak euren eskura jarri, eta abar.

Beste udal eta administrazio batzuetan, hizkuntza irizpideak hartzen dira kontuan kontratazioak egiten direnean. Gasteizen?

Gasteizko Udalean kontuan hartzen dira hizkuntza irizpideak. Hori bai, euskararen aldagaia beharren arabera da, ezin baita maila bera eskatu jendaurreko lanpostu batean edo herri-lanak egiteko lanpostuan.

Gasteizko bilakaera soziolinguistikoa esanguratsua izan da azken urteotan. Nola lagundu dezake Gasteizko Udalak bere garapenean?

Bi norabidetan ari gara lanean. Barrura begira, euskararen erabilera normalizatzeko plana daukagu. Kanpora begira, berriz, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Batean zein bestean, maila politikoan eta eragile sozialekin aurrez hitzartutako estrategiak garatzen ditugu, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta.



Enpresa sarea, euskaraz

www.enpresarean.org

Proiektuaren kudeatzailea:



/Enpresarean



@enpresarean



ziurtagiriaren
elkartea

